

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Elizalde kontseilaria tokiko erakundeetako eta Pirinioetako gizarte eragileekin bildu da Otsagabian

Bileran, Lursarea, lurralde eta iraunkortasunaren agentziak, aurrera eramandako ekintzak aurkeztu dira

Asteartea, 2018.eko urriak 9

Isabel Elizalde, Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako kontseilaria, Pirinioetako tokiko arduradunekin bildu da gaur goizean Otsagabiako Naturaren Interpretazio Zentroan Departamentua legegintzaldian garatzen ari diren politikak aztertu, eta Nasuvinsak, zehazki Lursareak, (lurralde eta iraunkortasun agentziak), bertan ematen dituen zerbitzuak aztertzeko.



Elizalde kontseilaria bileran parte hartu duten kideekin.

Zonaldeko hogeina arduradun elkartu dira topaketan. Bertan izan dira, Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari, Ignacio Gil, Ingurumen eta Lurralde Antolaketako zuzendari, Eva Garcia eta Toki Administrazioako zuzendari, Xabi Lasa, eta Lursarea, lurralde eta iraunkortasun agentziako eta Cederna Garalurreko ordezkariak. Gainera, bertan izan dira Garde, Jaurrieta, Otxagabia, Ezkaroz, Orreaga, Erronkari, Bidankoze, Izaba, Burgi eta Aezkoa. Bestalde, bileran izan dira Aezkoa, Erronkari eta Zaraitzuko juntetako ordezkariak.

Bilera amaitzeko “Negozio eredia. Landa merkataritza”, Hurbiltasunezko Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2018-2020ko Planari lotutako proiektuan parte hartzen ari den Erletxo dendara bisita egin dute.

Isabel Elizalde kontseilariak Nafarroako Gobernua landa ingurunekeo biztanlegoaren galtzearen inguruko behaketa egiten ari dela aurreatu du, batez ere mendialdeko zonladeetan, XXI. Mendeko gizartearen erronka globalari aurre egiteko helburuz: “Fenomeno horri aurre egiteko beharrezkoa da sektorekako politika ezberdinak moldatzea. Europako esperientzia ezberdinak eta interbentzio mekanismoak biltzen eta aztertzen ari gara”, azaldu du.

Pirinioetan bi hartz sartzeari buruz

Jarraian Frantziako Gobernuak bi hartz askatzeari buruzko bilera izan du kontseilariak tokiko arduradunekin. Bertan bildu direnei Frantziako

Trantsizio Ekologikoko ministerioko arduradunekin zein gainontzeko autonomia erkidegoetako, zein Espainiako ordezkariekin izandako bileretan landutako gaiak helearazi dizkie bertaratu direnei.

Gainera, gai honen inguruko iritzien berri jaso da eta Departamentutik, eta bereziki Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaritzatik zein Ingurumen eta Lurralde Antolaketarako zuzendaritza nagusitik, lan lerroetan garatzen ari diren aurrerapausoak azaldu dira. Azkenik, lerro horiek garatzeko bertaratu direnen ekarpenak ere bildu dira; horien artean, abeltzainen bizi kalitatea mantentzeko babes neurri ezberdinak; artaldean maneiuarekin eta ingurumenaren kudeaketarekin lotutako neurrien bultzada zein sortu daitezkeen kalteen gaineko neurri ekonomikoak.

Amaitzeko Elizalde kontseilariak irtenbideak eta lan lerroak zehazteko tokiko agente ezberdinen (tokiko erakunde, junta abeltzain zein gainontzeko sektoreetako ordezkariak) arteko koordinazio zehatza gauzatzearen garrantzia azpimarratu du.